

## PUBLIKOA, EUSKALDUNA ETA PROPIOA HELBURU

### Hezkuntza legea langileekin eraiki

Gaur, hemen, bildu garen sindikatuak, ELA, LAB, STEILAS eta CCOO, hezkuntza akordioaren zirriborroarekiko gure desadostasuna azaldu eta prozesu honetan eragitera etorri gara. Gure aldarrikapenak eta ondorioz, guk ordezkatzeko ditugun langileak, aintzat hartzea eskatzen dugu. Hori horrela, guretzat hezkuntza legea eraginkorra izan dadin jaso beharko litzuzkeen edukiak jarraian zerrendatzen ditugu:

#### Aldarrikapenak

**1.- Publikoa ardatz izango duen hezkuntza lege bat nahi dugu.** Egungo hezkuntza-sistema duala gainditu behar da eta Euskal hezkuntza-sistema publiko baterako bidea sustatu. Eskola publikoa hezkuntza-sistemaren ardatz gisa kokatu behar da. Hezkuntza-sistemarako publikazio-marko orokor eta adostua bat ezarri behar da, bertako langileen eta ikasleen eskubideak bermatuz eta baita langileen parte hartzea eta adostasuna prozesuan zehar ere.

**2.- Hezkuntza lege propioa nahi dugu.** Horretarako EAEko Hezkuntzan erabateko eskumenak eskuratu eta Euskal Herriko gainontzeko lurraldeekin elkarlana areagotu beharko litzateke.

**3.- Inbertsio eta baliabide nahikoa izango dituen hezkuntza lege bat nahi dugu.** Hezkuntzan inbertsioa handitzea aurreikusi behar da, Europako batz bestekoa erreferentzia gisa hartuz eta gutxienez BPGren %6ra bidea eginez. Ratioak jaitsiz, eta 0-18 urte tarteko hezkuntzaren doakotasuna bermatuz. Haur hezkuntzako 0-3 zikloak unibertsala, doakoa eta publikoa izan behar du, eta Hezkuntzan integratua egon behar du.

**4- Segregazioari aurre egin eta gizarte kohesioa bermatuko duen hezkuntza legea nahi dugu.** Segregazioari aurre egiteko neurri sorta urgentziaz onartu behar da, besteak beste, matrikulazio prozesu gardenak, irregulartasunik gabekoak eta ikasleak ez-segregatzeko helburua luketen administrazioaren menpeko matrikulazio bulego publiko eta bakarria ezartzeaz ari gara, eskualde, herri eta hiri guztietan.

**5- Euskara eta bizikidetzaren balioak erdigunean jarriko dituen Hezkuntza legea nahi dugu.** Hezkuntza-sistemaren oinarri gisa honako hauek ezarri behar dira: euskal curriculum; hezkidetzaren; laikotasuna; ekitatea; inklusioa; pentsamendu kritikoa; eta parte hartzea. Horretaz gain, euskararen murgiltze eta mantentze eredu orokortua, ikasle guztiei euskara gaitasun egokia bermatuko diona eta ikastetxe bakoitzaren ingurune soziolinguistikoaren arabera egokiturikoa, tokian-toki euskara indartzea helburu izanik; ikasle euskaldun-eleanitzak hezteko helburu izanik. Oinarri hauek bete beharko dituzte diru publikoa jasotzen duten eskola guztiek, ituntze-sistema unibertsalarekin bukatuz. Diru publikoaren parte-hartze eta kontrol publikorako mekanismoak lehentasunez ezarri behar dira, auditoria eta ikuskaritzen bitartez.

**6- Hezkuntza sistema osatzen dugun langile guztion enplegua eta lan baldintza egokiak bermatuko dituen legea nahi dugu.** Hezkuntzako langileen lanpostuak mantendu, prestakuntza eta lan-baldintza egokiak ezarri behar dira; publikoan langileen egonkortasun eta kontsolidaziorako prozesuak eginez eta itunduetako langileen lan-

baldintzak parekatzeko homologazioa. Langileen sarbideari dagokionez, aukera berdintasuna, meritua eta gaitasunen arabera sarbidea ere bermatu behar da, aurretiaz sindikatuekin adostua.

**7- Merkatuen interesen gidaritzatik eta enpresa pribatuen negozio esparrutik at egongo den hezkuntza legea nahi dugu.** Azpikontratazio eta pribatizazio prozesuekin bukatu behar da. Hala eskola publikoetan nola itunduetan azpikontratazioa mugatu (jangela, garbiketa, eskolaz kanpokoak...), eta botere-korporatibo digitalei mugak ezarri behar zaizkie (datuen erabilera debekatuz zein software propioa sustatuz)

**8- Hezkuntza lege parte hartzailea nahi dugu, langileak aintzat hartuko dituen.** Gizartearen eta Hezkuntza komunitatearen parte hartzea sustatu behar da, langileona barne, baita Hezkuntza legearen eraikuntzan bertan ere.

Horregatik guztiagatik, eta hezkuntzako langileok gure hezkuntzaren etorkizunean zer esanik badugulako, antolatu ditugun ondorengo mobilizazioetan parte hartzea dei egiten dugu. Mobilizazioak PUBLIKOA, EUSKALDUNA ETA PROPIOA lelopean deituko ditugu, "Hezkuntza legea langileokin eraiki".

#### **Mobilizazio egutegia:**

Martxoak 18 elkarretaratzea, 10:30ean Legebiltzarraren aurrean  
Martxoak 25 Greba: manifestazioa Bilbon, 11:30ean Arriagatik hasita  
Martxoak 28 elkarretaratzea, 10:30ean Legebiltzarraren aurrean

Euskal Herrian, 2022ko martxoaren 15ean



## PÚBLICA, EUSKALDUN Y PROPIA ES EL OBJETIVO

### Construir la ley educativa con las trabajadoras y los trabajadores

Reunidos los sindicatos ELA, LAB, STEILAS y CCOO, hoy y aquí, hemos venido por un lado, a mostrar nuestro desacuerdo con el borrador del acuerdo educativo y por otro, a incidir en este proceso. Pedimos que se tomen en consideración nuestras reivindicaciones y, en consecuencia, a las trabajadoras y trabajadores a quienes representamos. En este sentido, enumeramos a continuación los contenidos que, en nuestra opinión, debería recoger la ley de educación para que sea efectiva.

#### Reivindicaciones

- 1.- Queremos una ley de educación centrada en lo público.** Hay que superar el actual sistema educativo dual y promover el camino hacia un sistema educativo público vasco. La escuela pública debe situarse como eje del sistema educativo. Debe establecerse un marco general consensuado de publicación para el sistema educativo, que garantice los derechos del alumnado y de sus trabajadoras y trabajadores, así como su participación y acuerdo a lo largo del proceso.
- 2.- Queremos una ley de educación propia.** Para ello habría que asumir las competencias plenas de Educación en la CAV y aumentar la colaboración con el resto de los territorios de Euskal Herria.
- 3.- Queremos una ley de educación con inversión y recursos suficientes.** Hay que comprometer una previsión de aumento de la inversión en educación tomando como referencia la media europea y avanzando al menos hasta el 6% del PIB. Reducir las ratios y garantizar la gratuidad de la educación de 0 a 18 años. El ciclo 0-3 de educación infantil debe ser universal, gratuito y público, e integrado en Educación.
- 4.- Queremos una ley de educación que haga frente a la segregación y garantice la cohesión social.** Debe aprobarse con carácter de urgencia un paquete de medidas para hacer frente a la segregación, y nos referimos, entre otras, a la implantación de procesos de matriculación transparentes, sin irregularidades y a través de una oficina de matriculación pública y única, en todas las comarcas, pueblos y ciudades dependiente de la administración y que tendría como objetivo no segregar al alumnado.
- 5.- Queremos una ley de Educación que ponga en el centro el euskera y los valores de convivencia.** Establecer como base del sistema educativo el currículo vasco; la coeducación; la laicidad; la equidad; la inclusión; el pensamiento crítico; y la participación. Además, un modelo unificado de inmersión y mantenimiento del euskera, que garantice a todo el alumnado una competencia lingüística adecuada en euskera y que pueda ser adaptada al entorno sociolingüístico de cada centro escolar, con el objetivo de potenciar el euskera a nivel local; con el fin de educar alumnado euskaldun-plurilingüe. Todas las escuelas que reciban dinero público deberán cumplir estas bases para acabar con el sistema universal de concertación. Deben establecerse con carácter prioritario mecanismos de participación y control del dinero público, a través de auditorías e inspecciones.
- 6.- Queremos una ley que garantice el empleo y las condiciones laborales adecuadas de todo el personal que formamos parte del sistema educativo.** El mantenimiento de

los puestos de trabajo, la formación y las condiciones de trabajo del personal educativo; mediante procesos de estabilidad y consolidación de los trabajadores y las trabajadoras en la pública y la homologación de las condiciones de trabajo del personal concertado. En cuanto al acceso del personal al sistema, también debe garantizarse la igualdad de oportunidades, el acceso por méritos y capacidades, previo acuerdo con las organizaciones sindicales.

**7.- Queremos una ley educativa que esté al margen de la orientación a los intereses de los mercados y del ámbito de negocio de las empresas privadas.** Hay que terminar con los procesos de subcontratación y privatización. Limitar la subcontratación tanto en las escuelas públicas como en las concertadas (comedor, limpieza, extraescolares...) y limitar el poder corporativo digital prohibiendo el uso de datos y potenciando la creación y uso de un software propio.

**8.- Queremos una ley educativa participativa que tenga en cuenta a los trabajadores.** Debe promover la participación social y de la comunidad educativa, incluida la de sus profesionales, también en la propia elaboración de la ley de Educación.

Por todo ello, y porque las trabajadoras y trabajadores de la educación tenemos qué decir en el futuro de nuestra educación, hacemos un llamamiento a participar en las movilizaciones que hemos organizado para los próximos días. Convocaremos movilizaciones bajo el lema PÚBLICA EUSKALDUN Y PROPIA, " Construyamos una ley de Educación con los y las trabajadoras".

#### **Calendario de movilizaciones**

18 de Marzo, concentración: a las 10:30 enfrente del Parlamento

25 de Marzo, Huelga: manifestación en Bilbao, a las 11:30 desde el Arriaga

28 de Marzo, concentración: a las 10:30 enfrente del Parlamento

En Euskal Herrian, a 15 de marzo de 2022

